

tenemos nosotros en cambio las más excepcionales condiciones.

Si, pues, se toman medidas para repoblar nuestras aguas dulces, lógico es que se tomen también para repoblar nuestros marcs de los que mucho mayores beneficios podemos reportar.

---

## ILLETEA

---

Bedeinkatua izan dedilla ¡o! Jaun andia!

Zure eskuak nasaituten.

Nabelako gaur icharopena bialduagaz.

Penan deustala gozatuten.

¡Zenbat geyago nik dodan Jauna zugan pentsetan

Añbat urrintzen jat mundua!

Eta arimau lurrean bizi ez balitz legez,

Zeruruntz daukat aldatua!

¡An billatuten ditut liburu baten legeche,

Zure egintzak miragarri,

Hat irakurten asi orduko gerututen naz,

Zur eta arri eginda ni!

¡Zelan ez dot nik egan emendik oraiño baña,

Alako erri betikora?

Nondik daukadan arima maite naben bat deika,

Aldamenera noakola?

Berak igeñi eustanik ona neure ondotik,

Ezin bete jat utsunea;

Urte bi datoz neure esposa ill jatala ta,

¡Bizirik daukat gomutea!

Bere gorputza datzan toki iñill ta mutu onek  
 Onaratu nau nai ta nai ez;  
 Aidez dabillan egazti triste egarritua,  
 Pozu geldicho batek legez.

Eta emendik erdibiturik nire biotzak  
 Iñoz ez lako zotiñakaz;  
 Kantetan ditu atsekabezko bertso samurrak,  
 Bustirik negar malkoakaz.

Orri leidunai<sup>1</sup> Eguzkiaren begiak jota,  
 Badeutse negar gaur erazo;  
 Damuak niri iturricho bi begietatik  
 Ateratea ¿da millagro?

¿Ze millagro tia beste alberdi danak ichita  
 Ipar aldera bai orratza?  
 Jausten dan legez, zuzendu arren nire biotz au  
 Emaztearen obirantza?

Nardietako<sup>2</sup> arri libreak bilin bolaka  
 ¿Ez dira jausten arrokara?  
 Nire biotz au bere lurretik aldendu nairik  
 ¿Ez dator zulo onetara?

Ontzi ausia urpera legez natorrenean  
 Emaztearen tokichora,  
 Nire arimak egan daiala aren arimak  
 Daukan abia zerukora.

Ez dabelako Eriotzeak an aginduten.  
 Oi daben legez lur onetan,  
 Bizi dedin an, emen ain laztan ebanaz nasi,  
 Danoen Jauna alabetan.

FELIPE ARRESE TA BEITIA.

Ochandion, 1895-ko Santu guztien egunean

---

(1) Leia=izotza.—(2) Nardia=derrumbadero